

UNIBERTSITATEA. Bere etorkizuna baldintzatuko duen kongresua egingo du Udako Euskal Unibertsitateak (UEUk) larunbatean, Bilboko Euskalduna jauregian. Bertan, beste gauza batzuen artean, daukan zeregina zein den zehaztuko du.

Euskal unibertsitatea eratze bidean «lider lana» bereganatu gura du UEUk

Erakundearen helburuak zehaztuko dituzte II. Kongresuan, datorren larunbatean, Bilbon



LANDER F. ARROIAIBE / ARGAZKI PRESS

Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroak, Iruñean.

Asier Iturriagaetxebarria | BILBO

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) euskal gizarteari begira daukan zeregina definitzeko asmoa dauka abenduaren 14an Bilboko Euskalduna jauregian egingo duen II. Kongresuaren barruan. Horretarako, *Geroa orain* izeneko hausnarketa txostena prestatu dute erakundearen barruan, bazkideek eztabaidatu dezaten. Hiru atal nagusi dauzka txostenak: Euskal Herriko unibertsitateen egoeraren analisia; UEUren definizioa, zeregina eta hori lortzeko plan estrategikoa lantzea, eta UEUren barne antolaketa berrirako proposamena.

1995. urteko apirilean bere lehen kongresua egin zuen UEUk, eta bertan ondorioztatu zuten euskara eta unibertsitatea uztartzen zituen erakundea zela eurena. Era berean, UEUren helburua euskal unibertsitatea lortzea zela esan zuten bazkideek. «Unibertsitate nazionala, herritarra eta euskalduna», horrela definitzen zuten orduan. Hala ere, II. Kongresuari begira hainbat aldaketa egitea proposatu dute txostengileek, batez ere *euskal unibertsitatea* kontzeptuaren definizioaren inguruan, horrek erakundearen jomugan eta zereginean daukan ondorioekin.

Orain arte UEUk euskal unibertsitatearen definizio klasikoari eutsi dio gehiago; hau da, euskal unibertsitatea unibertsitate etxea egiten denean sortuko den ideiarekin bat egin du. Urteak aurrera egin ahala, ordea, beste ideia eta definizio batzuk garatu dira, Eire-rena kasu. Horixe da, hain zuzen, *Geroa orain* txostenean UEUk bere hartzea proposatzen duena. Hauxe dio definizio horrek: «Euskal unibertsitatea euskarazko unibertsitate modura definitzen dugu, eta euskaraz egiten den unibertsitate irakaskuntza, ikerkuntza, kudeaketa eta egitura oro hartzen ditu bere baitan». Hala, horren arabera, Euskal Herrian dauden unibertsitateetan egiten den euskaraz-

DEFINIZIO BERRIA

Euskal Unibertsitate Sistema euskaraz jarduten duten unibertsitate zati guztien sarea dela dio txostenak

EZTABAIDA

UEUren etorkizuna baldintzatu dezaketen gaien inguruan eztabaida izan daiteke Euskalduna jauregian

ko jarduera oro euskal unibertsitatearen zati gisa hartzen du UEUk. Horren harira, kontzeptu berri bat ere hartzen du UEUk, eta euskal unibertsitatea izendatzeko *Euskal Unibertsitate Sistema* bereganatzen du, unibertsitatea sare gisa ulertuz.

UEUren helburu berriak

Definizio berri horretatik abiatuta, UEUk gizartean daukan zeregina ere aldatuko du, eta hemendik aurrera helburua izango du «Euskal Unibertsitate Sistema eratze bidean subjektu izateko lider lana bereganatzea». Halaber, UEUk ez diola bere buruari mugarik jartzen azpimarratu dute txostenean, eta aitortu dute Euskal Herriaren lurraldetasunaren eta euskal komunitatearen beharriaznei egoki erantzungo dien euskarazko unibertsitate egitura berrien premia dagoela. «Horregatik, datozen urteetako ibilbidean UEUk aldarrikapenetatik haratago joan eta horiek gauzatzearen alde egingo du».

Geroa orain hausnarketa txostenean euskal unibertsitatearen definizio hori egiten bada ere, abenduaren 14an egingo den kongresuan gauzak erabat alda daitezke, erakundearen barruan sentsibiltate eta pentsaera bat baino gehiago dagoelako. Hala, definizio eta

UEU-REN AZTERKETA

UEU, barrutik ikusita

Geroa orain hausnarketa txostena egin aurretik, UEUkideengana jo zuten, erakundea bera zelan ikusten zuten jakiteko. Izan ere, etorkizuneko bideak nondik norakoa izan behar duen zehaztu baino lehen, atzera begiratzea nahi izan zuten. Hala, bazkideek UEU helburu zehatzik ez daukan erakunde gisa ikusten dutela konturatu ziren txostengileak. Hori bai, euskara eta unibertsitatea ardatz zituen erakundea dela argi zeukaten UEUkideek.

Bestalde, UEUkideen ustez erakundearen puntu ahulak eta indartsuak zeintzuk diren ere

zehaztu zuten. Bertan, UEUren inguruan dabilen militantzia edo borondatea azpimarratu zuten guztiek, bai onerako eta bai txarrerako. Izan ere, azken urteetan inplikaziorako joera hori galtzen ari dela adierazi zuten UEUkideek.

Puntu ahulen gainera, itxaropena izateko bidea agertu zuten galdeketa erantzun ziotenean. Horren adibide gisa jarri zuten UEUk Eibarraren eta Bilbon egoitzak izatea, langile kopurua handitu izana eta irakasle eta ikasle «kapital sendoa» izatea. Hala ere, hobetu beharreko gaiak ez zituzten ahaztu. Batez ere, UEU gizartean ezagutaraztea eta Iparraldean indarra hartzea falta dela aipatu zuten.